

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

**SENTSIBILIZAZIO ZENTRALEKO GAIXOTASUNEI BURUZKO ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA: SENTSIBILITATE KIMIKO ANIZKOITZA, ELEKTROHIPERSENTIKORTASUNA,
FIBROMIALGIA ETA NEKE KRONIKOKO SINDROMEAK.**

“Pertsona orok du bizimodu duina izateko eskubidea, bai berari eta bere familiari osasuna eta ongizatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, bizitokia, mediku-sorospena eta gizarte-zerbitzuak bermatuta izateko eskubidea. Eskubidea du, baita ere, aseguruak izateko, hark nahi barik bizibidea galtzen duenean; gaixotasunen ondorioz, elbarritasunagatik, zahartzaroagatik, alarguntasunagatik edo bestelako kausa batengatik”

(Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 25.artikulua)

Durangoko Udaleko udalbatzak elkartasuna adierazi gura die Sentsibilizazio Zentraleko gaixotasunak dituzten herritarrei, eta erakunde gisa konpromisoa hartu nahi du durangarrentzako herri seguru eta osasungarri bat lortzeko bidean.

Sentsibilizazio Zentraleko gaixotasunek -Sentsibilitate Kimiko Anizkoitza, Elektrohipersentikortasuna, neke kronikoa eta fibromialgia- min eta sufrimendu handia eragiten diete gaitzak pairatzen dituztenei. Gainera, gaixoei gizartearen zati baten eta gizarte-, osasun- eta hezkuntza arloko instantzien ulertezintasuna jasan behar izaten dute. Sarritan, gaixoei aipatutako gaitzetako bi, hiru, edo laurak pairatzen dituzte.

Gaixotasun hauek ez dute osatzeko tratamendurik; tratamendu aringarriak edo ikuspuntu soziosanitarioko zaintza erabiltzen dira gaixoak artatzeko. Pertsona horien bizitza kalitatea bermatzea izaten da helburua, eta, horretarako, gaixoen autonomia eta zaintza bultzatu ohi dira, gaitzak okerrera ez joateko prebentzio lana egiten da, eta tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko beharra egiten da.

Gaixotzerakoan pertsona hauen bizitzak guztiz aldatzen dira, gaitzek eragin zuzena baitute gaixoen lanerako gaitasunean, autonomia pertsonalean, eta bizitza sozialean.

Sentsibilizazio Zentraleko gaixotasunek zerikusia dute egungo bizitza ereduek eragindako ingurumen-faktoreekin; izan ere, denbora luzez egoten gara produktu kimikoen eta uhin elektromagnetikoen eraginpean, eta kantitate handia jasotzen dugu. Uhin elektromagnetikoak inguruan ditugun haririk gabeko komunikazioek, eta aparailu elektriko eta elektromagnetiko anitzek igortzen dituzte.

Azterketa askok ondorioztatu dutenez, lotura zuzena dago gaixotasun hauek ugaritzearen eta zenbait jardueren artean: substantzia toxikoak atmosferara eta uretara isurtzea; jakietan kaltegabetasuna ziurtatuta ez duten produktu kimikoak erabiltzea; garbitasunerako produktuen erabilera; eraikinak; etab. Gainera, gaur egun badakigu eremu elektromagnetikoek gure organismoaren eta izaki bizidun guztien funtzionamendua nahasten dutela, eta, beraz, erradiazioak gure osasunari eragiten diola, gaur egun legaltzat hartutako erradiazio mailatik behera ere.

2011n, Europako Kontseiluak “Eremu elektromagnetikoen arriskuak eta beren eraginak naturan” txostena argitaratu zuen, eta bertan neurri batzuk proposatu zituen gizakiak eta ingurumena babesteko; “zentzuzko neurri guztiak hartzea eremu elektromagnetikoekiko esposizioa murrizteko (...), batez ere ume eta gazteen esposizioa”. Txosten horretan Europar

Batasuneko estatuei zuhurtasun-printzipioa martxan jartzeko eskaera egiten zaie (Osasun publikoari buruzko lege orokorrak aitortuta, urriaren 4ko 33/2011 Legea). Helburua herritarrak babestea da; bereziki, umeak, gazteak, haurdun dauden emakumeak, adinekoak, eta osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen jardueretan egon daitezkeen kolektiboak.

2012an, Arartekoak zera eskatu zien administrazio arduradunei: “Erabateko arreta eskaini behar diete pertsona horiei osasun eta gizarte arloetan; prestakuntza bermatu behar diete osasun arloko profesionalei, justizia epaitegietakoei eta, oro har, zuzenean kasu egiteko zerbitzu publikoetakoei; prebentzioa txertatu behar dute hezkuntza curriculumean; ikertu egin behar dituzte gaixotasun horien etiologia eta tratamendua; ingurumena babestea eta hobetzea ahalbidetu behar dute, baita gune garbiak sortzea ere, eta beren jardueretan aintzat hartu behar dituzte zuhurtasunaren, gardentasunaren eta ingurumenari buruzko informazioaren printzipioak, beste neurri batzuen artean”.

Ordezkarri publikoak garen heinean, gure erantzukizuna da sentsibilizazio, formazio eta informazioa baliatzea herritarrengan eragiteko; alde batetik, pertsonok gizartearen sortzen diren aurrerapenen kontsumo arduratsu eta segurua egin dagigun; eta, beste aldetik, ingurumenarekin eta pertsonekin errespetuzkoak diren jarduerak bultzatu ditzagun, bide batez, gu guztion bizitza kalitatea hobetzeko.


Eta, horretarako, honako konpromiso hauek hartu gura ditugu:

Munduko Osasun Erakundeak, Europar Batasunak eta Arartekoak emandako argibideak jarraituta, beharrezko ekintzak burutuko ditugu herritar guztiok ahalik eta modu seguruenean baliatu ditzagun teknologia eta telekomunikazio arloan egiten diren aurrerapenak. Horretarako, ikertu egingo dugu, eta herritarrak, teknikariak eta arduradunak formatu eta informatuko ditugu osasun arloko aukerarik seguruenen eta aurreratuenen inguruan, Europar Batasuneko eta kanpoko hainbat udalerrri egiten dabiltzan antzera.

Durango Udalak konpromisoa hartzen du beharrezko pausuak emateko eta osasunerako eta ingurumenerako kaltegarriak ez diren substantziak erabiltzen hasteko garbiketa zerbitzuan, eta baita lorategien, eraikinen eta espazio publikoen zaintzan, eta izurriteen kontrako produktuetan, kontuan hartuta zer produktuk ez dieten kalterik egiten Sentsibilizazio Zentraleko gaixotasunen bat duten herritarrei.

Durango Udalak konpromisoa hartzen du batzordeetan egin beharreko lanketa egiteko, ekintza zehatzak adostu ahal izateko Durango pertsona guztientzako leku segurua izan dadin eta herritar guztien osasuna bermatu dadin.

Konpromisoa hartzen dugu gaixotasun hauek pairatzen dabiltzan herritarrentzat diru-laguntzen plan bat sortzeko, euren etxebizitzak egokitu ditzaten.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LAS ENFERMEDADES DE SENSIBILIZACIÓN CENTRAL: SENSIBILIDAD QUÍMICA MÚLTIPLE, ELECTROSENSIBILIDAD, FIBROMIALGIA Y FATIGA CRÓNICA.

“Toda persona tiene derecho a un nivel de vida adecuado que le asegure, así como a su familia, la salud y el bienestar, y en especial la alimentación, el vestido, la vivienda, la asistencia médica y los servicios sociales necesarios; tiene asimismo derecho a los seguros en caso de desempleo, enfermedad, invalidez, vejez u otros casos de pérdida de sus medios de subsistencia por circunstancias independientes de su voluntad”

(Artículo 25 de la Declaración Universal de Derechos Humanos)

El Pleno Municipal del Ayuntamiento de Durango quiere mostrar su solidaridad con todas las personas afectadas por las enfermedades de Sensibilización Central, mostrando como institución el compromiso de lograr que Durango sea un municipio seguro y saludable para sus habitantes.

Las enfermedades de Sensibilización central: sensibilidad química múltiple, hipersensibilidad electromagnética, fatiga crónica y fibromialgia acarreamos gran dolor y sufrimiento a quienes las padecen, enfrentándose además a una tremenda incompreensión por parte de la sociedad y las diferentes instancias sociales, educativas, sanitarias, etc. A menudo, la persona enferma padece dos, tres o, incluso las cuatro dolencias.

Estas enfermedades carecen de tratamiento curativo, por lo que demandan atención basada en tratamientos paliativos o cuidados centrados en una perspectiva sociosanitaria que garantice la calidad de vida de la persona mediante el fomento de su autonomía y cuidado, la prevención del deterioro y la igualdad de trato y oportunidades.

Traen consigo una alteración completa de la vida de estas personas ya que se ve afectada su capacidad laboral, su autonomía personal y de la vida social.

Todas ellas están relacionadas con factores ambientales derivados de nuestra nueva forma de vida en la que mantenemos una exposición elevada y prolongada a productos químicos de diversa índole y a las radiaciones y ondas electromagnéticas de diversa intensidad, emitidas por las comunicaciones inalámbricas y la infinidad de aparatos eléctricos y electromagnéticos que nos rodean.

Según muchas y diversas investigaciones, parece existir un nexo evidente entre la proliferación de estas enfermedades y la liberación de sustancias tóxicas a la atmósfera y las aguas, el uso de productos químicos de inocuidad no testada en alimentos, productos de limpieza e higiene, edificios, etc. Así como, existe hoy día la certeza que los campos electromagnéticos interfieren en el funcionamiento de nuestro organismo y de todos los seres vivos y que por lo tanto afectan a nuestra salud a niveles de radiación por debajo de los actualmente considerados legales.

En 2011 la asamblea parlamentaria del Consejo de Europa recomienda a través del informe “peligros potenciales de los campos electromagnéticos y sus efectos sobre el medio ambiente” una serie de medidas para proteger a los seres humanos y al medio ambiente “adoptar todas las medidas razonables para reducir la exposición a los campos

electromagnéticos, (.....)y en particular la exposición de los niños y jóvenes (.....)” En este informe alude a poner en marcha por los estados miembros el principio de precaución (recogido en la Ley 33/2011 de 4 de octubre (General de Salud Pública)) para proteger a los ciudadanos y ciudadanas con especial atención a los niños, jóvenes, mujeres embarazadas, ancianos y otros colectivos vulnerables de una actividad que podría suponer un riesgo potencial para la salud.

En 2012 el Ararteko insta a las administraciones responsables “ofrezcan a estas personas una atención integral en los ámbitos sanitario y social; garanticen la formación de las y los profesionales servicios públicos de atención directa; incorporen la prevención en el currículo educativo; investiguen sobre su etiología y tratamiento; favorezcan la protección y mejora del medio ambiente y contemplen en sus actuaciones los principios de precaución, transparencia e información ambiental, entre otras medidas.”

Es nuestra responsabilidad como representantes públicos contribuir mediante la sensibilización la formación y la información a lograr que las personas hagamos un consumo responsable y seguro de los avances que se producen en nuestra sociedad, a establecer practicas respetuosas con el medioambiente y con las personas, que redunden en la mejora de la calidad de vida de todas y de todos.

Y, para ello quiere poner de manifiesto los siguientes compromisos

Que siguiendo las indicaciones la OMS, de la Unión Europea, el Ararteko se llevarán a cabo las acciones necesarias para que todos los y las ciudadanas podamos disfrutar de la tecnología y los avances que se producen en el campo de las telecomunicaciones de la manera más segura. Investigando, formando e informando a la población, técnicos y responsables de las alternativas sanitariamente más seguras y avanzadas, tal y como ya vienen haciendo muchos municipios dentro y fuera de la Unión Europea.

El Ayuntamiento de Durango se compromete a dar los pasos necesarios para que los servicios de limpieza y cuidado de jardines, edificios y espacios públicos, control de plagas, etc. se realice la transición para el uso de sustancias no perjudiciales para la salud ni medio ambiente, estableciendo como productos que puedan ser utilizados aquellos que no provoquen reacciones adversas en las personas afectadas de SQM.

El ayuntamiento de Durango se compromete a realizar el trabajo necesario en las diferentes comisiones para consensuar las acciones concretas que sean necesarias para lograr que Durango sea un espacio seguro para todas las personas, que pueda garantizar la salud de todos sus habitantes.

Establecer un plan/línea de ayudas a las personas afectadas por estas enfermedades para poder adecuar su entorno (vivienda)